

GARITAONANDIA'TAR BITTOR NEURE GOGOAN

Zaldibar, 1976-III-6

A. Zatarain

Garitaonandia'tar Bittor abadea, soin txikerreko gizon andia! Ezagutu neuean Donosti'ko jesuiten eleizan organistea zan. Eztarri ederra euan kantateko.

Donostia'n 1921 urtean agertu zan "Argia" asterokoa; kaleetan "Argia, periodiko berria" oiur egiten euela gogoan dot. Neure aita zanak sortu euan, berak emoten euan dirua, eta berak idazten euan lugintza-gaiak agertuten euen orrialde osoaren erdia baiño geiago, zenbait astetan orrialde osoa bere bai. Don Bittorr asiera-asieratikako laguntzaille izan zan.

"Argia"ren lelengo artezkari edo direktorea Karrera'tar Jesus abade gaztea izan zan. Baiña denpora laburrean izan zan artezkari: gazte-gazterik ill egin zan.

Orduan Garitaonandia ipiñi euen artezkari. Lasterr etorri jakazan kardaruak, buruko-miñak eta drogak. Primo de Rivera generala Espaiña'n aginten jarri zan, eta Gipuzkoa'n bizkaitar bat, Artzadun generala, bermeotarra bera' ipiñi euan "gobernador cívico-militar"; beste iñork batera eduki eztauzan bi kargu orreik bere gaiñ euazan.

"Argia" euskeraz ateratea eragotzi egiñ euan. Don Bittorr eta neure aita zana Artzadun'engana joan zirean. Izketaldi luze baten ondoren' Artzadun bera euskaldun zanari eskerr' "Argia" euskeraz agertuten jarraitzeko baimena lortu euen, baiña baldintza bategaz: astero-astero zati berezi bat agertu bearr euan, erderaz ezekien irakurleak gaztelaniz ikasteko irakurgai batzu: euskerazko berba bakoitzaren ondoan gaztelanizko berbea ipiñi bearr euan.

Biak pozik urten euen gobernadore bikoitzagandik, baiña bildur samar. Gobernadore jaunari poz emotearren edo urrengo astean don Bittorr'ek "Argia"ren aurreko orrialdean Victoria Eugenia erregiñearen erretratu andi bat agertu euan. Eta arpidedun batzuk "Argia" geiago ezeuela artu gura idatzi eutsoen. Don Bittor koittadua zelan asmau ezekiala gelditu zan.

Geroago domeketan Donosti'ko Antigua'ko San Sebastian eleizako meza nagusira joaten nintzan; domekaero organoa don Bittorr'ek jotzen euan, eta meza-ondorean geure etxera bazkalduten etortzen zan. Jatorduan eta bazkalondoan "Argia" izaten zan don Bittorr'en eta neure aitaren berbagaia.

Neure osaba Juan Joxe ezkondu zanean' bazkalondoan don Bittorr'ek berak egindako bertso parebat kantau euan. Lelengo bi lerroak besterik eztoz gogoan: "Ortiz'tar Mari-Tere / artu dezu emazte...", "Desde que nace el día" zortzi-koaren doiñuagaz.

Ill arte "Argia"ren artezkari izan zan; idatzi bere asko idazten euan, eta izen-ordez beti "Garbi" ipinten euan, Gari-taonandia eta Bittor izenen lelengo letrakaz egindako izena. Bizkaitarra izan arren' beti gipuzkera garbiz egiten euan. Eta alan egin bear bere, "Argia" Gipuzkoa'n bakarrik salduten zan-da.